Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko ekainean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.597 izan da, maiatzean baino 32 gutxiago eta joan den urteko ekainea baino 268 gehiago. Egunean bataz bestez 79 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino eskaintza 5 gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko ekainean 172 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 662 Gipuzkoan eta 763 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 47,8 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 41,4 Gipuzkoan eta % 10,8 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 33,1 murriztu dira eskaintzak (85 eskaintza gutxiago), Gipuzkoan % 2,2 hazi dira (14 eskaintza gehiago) eta Bizkaian eskaintza kopurua % 5,4 hazi da (39 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 16 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 8,5eko murrizketa; Gipuzkoan eskaintza kopurua 177an hazi da, % 36,5eko hazkundea, eta azkenik, Bizkaian 107 eskaintza gehiago izan dira, % 16,3ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 4 eskaintzeko 1 zerbitzuetako lanbide-profilerako erregistratu da (324 eskaintza); industriako langileen lanbide-profilak jarraitzen dio (296 eskaintza). Laguntzarako teknikari, okupazio ez kualifikatu, eta zientzia teknikarien lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 262, 227 eta 190 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak izan dira (4).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai balore absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (47 eskaintza gehiago, % 21,9ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintzak balore absolutuetan zerbitzuetakoak izan dira (48 eskaintza gutxiago, %12,9ko murrizketa); balore erlatiboetan aldiz, ez-kualifikatuenak izan dira gehien murriztu direnak (%13,7 , 36 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, laguntzako teknikariena izan da (84 eskaintza gehiago, %47,2ko hazkundea). Murriztu diren eskaintzak bakarrak lehen sektorekoak izan dira (%60eko murrizketa, 9 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 9,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 90,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,3k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 152 izan dira, 40 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 20,8ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 10 gehiago erregistratu dira: 1.441 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 0,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko ekainean 4 izan dira, aurreko hilean baino 2 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 152n mantendu dira, aldi baterako kontratuen eskaintzak % 23,2 hazi dira, 270 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuen eskaintza 2 gutxiagokoa izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko ekainean erregistratutako lan-eskaintzen %74,4ak (1.189 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 16,3k (261) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 1,6ko eta % 0,3ko pisua dute, hurrenez-hurren (25 eta 5 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira, 0 eta 6 hilabeteko esperientzia eskatzen dutenak izan ezik,hauek % 1,2 hazi dira (14 eskaintza gehiago). Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (28 eskaintza gutxiago); balore erlatiboetan, berriz, 3-5 urte tartekoak izan dira (%34,2ko murrizketa, 13 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: gehien hazi diren eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (293 eskaintza gehiago, %32,7ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (24 eskaintza gutxiago, %17ko murrizketa).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, 2018ko ekainean eta 2019ko maiatzean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 21,2k zehazten du datu hori (1.597 eskaintzetatik 338). 338 eskaintza horietatik, 284 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 54ak lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 76 gehiago izan dira maiatzarekin alderatuz, hau da, % 36,5 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 20 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 6,5ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 116 gehiago izan dira (% 69ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko 15 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 21,7ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko ekaina, 2019ko maiatza eta 2019ko ekaina), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena ekainean izan da, % 29,1eko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 1,2 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.597 eskaintzetatik 19 soilik. Aurreko hilean 23 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 88,8k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.597 eskaintzetatik 179k soilik zehaztu dute.



179 eskaintza horietatik, 99k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 55,3k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 37 eskaintza (% 20,7). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 28 eskaintzekin (% 15,6). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 15 eskaintzekin, eta % 8,4ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 179 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago ekainean lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, maiatzean baino (179 eskaintza ekainean; 206 maiatzean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean apur bat txikiagoa izan da (% 11,2 ekainean eta % 12,6 maiatzean). Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak gutxitu dira batxilergokoak izan

ezik; ikasketa maila hau eskatzen duten lan-eskaintzak 4 gehiago dira. Oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien murriztu direnak,bai balio absolutu eta baita erlatibotan ere; 20 eskaintza gutxiago jaso dira, %41,7ko murrizketa.

2018ko ekainarekin alderatuz,hazi diren eskaintzak mota bakarrak unibertsitatekoak izan dira (eskaintza 1 gehiago). Gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (15 eskaintza gutxiago, %34,9ko jeitsiera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, merkataritza eta jarduera administratiboak dira, eskaintzen % 17,2ko, % 16,7ko, % 10,3ko pisuarekin, hurrenez- hurren (275, 267, eta 165 lan-eskaintza 1.597 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintza motak, balore absolutu eta erlatibotan, zientzia profesionalenak izan dira (26 eskaintza gehiago, % 32,9ko hazkundea). Eboluzio negatiboa izan dutenen artean jarduera administratiboak izan dira gehien murriztu direnak (% 22,9ko murrizketa, 49 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, 4 eskaintzek egin dute behera; lehen sektoreak (-6), eraikuntzak (-3), ostalaritzak (-15) eta finantza jarduerek (-4). Bestalde, industriakoak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (65 eskaintza gehiago, % 31ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, profesionalen eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%78ko hazkundea, 46 eskaintza gehiago).